



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

GIZARTE HEZITZAILEEN EUSKADIKO ELKARGOAREN ESTATUTUEI BURUZKO TXOSTENA

LEA/AVC 299-ARAU-2018 espedientea

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	2
II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK.....	2
1. LEAren eskumenak.....	2
2. Elkargo profesionalen araudia	2
3. Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa	4
III. GOGOETA LEHIARI BURUZKO ARAUAK DIRELA ETA	5
1. Elkargoaren helburuak eta funtzioak.....	5
2. Sartzeko baldintzak eta prozesua	7
3. Elkargoaren erreakzioa lehia desleialeko kasuetan	8
4. Ordainsari profesionalak eta zerbitzu profesionalen publizitatea	8
5. Baliabide ekonomikoak	10
6. Elkargoa eta gizarte-hezitzaileak lehiaren arloko araudiaren mende egotea	11
IV. ONDORIOAK	11

Osoko bilkura

Alba Urresola Clavero, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva, bokala

Enara Venturini Álvarez, bokala eta idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), adierazi bezala osatuta 2018ko uztailaren 26an eginiko bileran, txosten hau onartu du LEA/AVC 299-ARAU-2018 espedientean.



I. AURREKARIAK

1. 2018ko apirilaren 13an, Lehiaren Euskal Agintaritzan (LEA) sartu zen Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzaren idazki bat. Bertan eskatzen zen Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoaren estatutuen aldaketari (estatutuak) buruzko txosten bat emateko. Eskariarekin batera, aldatutako estatutuen kopia bat bidali zuten.

II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

1. LEAren eskumenak

2. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legeak 3.3 eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko eman dizkion eskumenek hala baimenduta egin dugu txosten hau¹. Funtzio horren xedea da Euskadiko merkatuetan benetako lehia sustatzea, kontsulta-izaerako ebazpenen eta zehapenekoak ez diren ebazpenen bidez; horien artean, nabarmentzekoak dira administrazio publikoei zuzendutakoak.

3. Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoaren (elkargoa) estatutuen azterketan bi gomendio mota egingo dira: arau-hauste posibleak aipatzen dituztenak, alde batetik, eta, estatutuetan jasotako aukera indarreko legeriaren guztiz kontrakoa izan ez arren, lehiari kalte gutxiago egiten dioten beste aukera batzuk posible direneko kasuak. Azken kasu horretan, interes publikoarentzat onuragarriagoak diren alternatibak proposatuko dira.

Txosten hau egituratzeko, kategoria materialak hartu ditugu kontuan; hau da, ez diogu jarraitu artikuluen ordenari. Hala ere, argiagoa izan dadin, oinarritzko arauen testuak aipatu ditugu epigrafe bakoitzean, eta adierazi dugu Estatutuetako zer manamendutan duten eragina eta zer iritzi dugun.

2. Elkargo profesionalen araudia

4. Gure antolamendu juridikoak, elkargo profesionali buruz arautzen duenak, oinarri konstituzionala dauka. Hain zuzen ere, zera ezartzen du EKren 36. artikulua: «Legeak elkargo profesionalen araubidea ezarri eta tituludun

¹ EAEko 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.).



lanbideen jarduera arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan beharko dute».

5. Elkargodun lanbideak lehia askearen araubidean egin behar dira, eta guztiz aplikatu behar zaie Lehiaren Defentsarako Legea (LDL)².

6. Estatuko eta autonomietako araudia Europar Batasuneko zerbitzuen zuzentzarauaren aurrekoa da: Elkargo Profesionalen Legea (EPL) eta tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko Legea (18/1997 Legea). Hala ere, zuzentzarauaren transposizioa egiteko Estatuko eta autonomietako arau ugari aldaketak eragin zituzten elkargo profesionalen jarduteko araubidean, batik bat «Aterki Legea» eta «*Omnibus* Legea» delakoek eta, EAEn, 7/2012 Legeak³.

7. 18/1997 Legearen xedea hau da: «Tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarrizko legerian edota arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da». Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak soilik dituen

² Estatuko 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Babesari buruzkoa (2007ko uztailaren 4ko BOE, 159. zk.), gero beste lege hauek aldatua: 39/2010 Legeak, abenduaren 22koak (BOE-A-2010-19703); 2/2011 Legeak, martxoaren 4koak (BOE-A-2011-4117), eta 3/2013 Legeak, ekainaren 4koak (BOE-A-2013-5940). Testu bateratua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>. Egoera horren iturburuan, Europar Batasuneko Zerbitzuen Zuzentzaraua aplikatzearen ondoriozko zenbait arau-aldaketa daude.

³ 2006/123/EE Zuzentzaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa, Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 376/36, 2006ko abenduaren 27koa.

Estatuko 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, Elkargo Profesionalen buruzkoa (1974ko otsailaren 15eko BOE, 40. zk.); honako hauek aldatu dutena: 74/1978 Legeak, abenduaren 26koak (BOE-A-1979-697); 5/1996 Errege Dekretuak, ekainaren 7koak (BOE-A-1996-13000); 7/1997 Legeak, apirilaren 14koak, (BOE-A-1997-7879); 6/1999 Errege Lege Dekretuak, apirilaren 16koak (BOE-A-1999-8577); 6/2000 Errege Lege Dekretuak, ekainaren 23koak (BOE-A-2000-11836); 25/2009 Legeak, abenduaren 22koak (BOE-A-2009-20725); 5/2012 Legeak, uztailaren 6koak (BOE-A-2012-9112). Testu bateratua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1974-289&b=2&tn=1&p=20091223>.

18/1997 euskal Legea, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa (1997ko abenduaren 11ko EHAA, 237. zk.).

Azaroaren 23ko 17/2009 Legea, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa, Aterki Lege deitua (2009ko azaroaren 24ko BOE, 283. zk.); abenduaren 22ko 25/2009 Legea, zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena, Omnibus Lege deitua (2009ko abenduaren 23ko BOE, 308 zk.); eta Eusko Legebiltzarraren 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko zuzentzaraua egokitze aldera zenbait lege aldatzen dituena, eta tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 euskal Legea aldatzen duena (2012ko apirilako 30eko EHAA, 84. zk.).



eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, Espainiako Konstituzioaren 139. artikuluari kalte egin gabe, betiere. Hain zuzen ere, zera xedatzen da artikuluko horretan: «Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea».

8. Hori dela eta, elkargoak 18/1997 Legean ezarritakoari jarraitu behar dio, Europar Batasunaren araudira egokitzeko 2012an egindako aldaketen ondoren indarrean dagoen testuari, hain zuzen. Arau horren bederatzigarren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraituz, «Elkargo profesionalen araubidearen oinarriak arautzen dituzten manamenduak bere osotasunean edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarriko araudian berrikusten diren unean».

3. Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa

9. Abenduaren 22ko 7/2003 Legeak Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa sortu zuen⁴.(EGHL)

10. EGHLren 3. artikuluari jarraikiz, bertan sartu ahal izango dira Gizarte Hezkuntzako unibertsitate-diplomadunaren titulazioa (abuztuaren 30eko 1420/1991 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera lortuta)⁵ edo agintari eskudunek homologatutako beste edozein dutenak.

Abuztuaren 30eko 1420/1991 Errege Dekretuak Gizarte Hezkuntzako diplomadunaren unibertsitate-titulu ofiziala eta hura lortzeko ikasketa-planen berezko zuzentarau orokorrak arautzen ditu. Aipatutako Errege Dekretu hori honako arau hauek aldatu eta/edo garatu dute⁶:

⁴ 7/2003 Legea, abenduaren 22koa, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa sortzekoa. 2003ko abenduaren 30eko EHAA, 254. zk.

⁵ Abuztuaren 30eko 1420/1991 Errege Dekretuak Gizarte Hezkuntzako diplomadunaren unibertsitate-titulu ofiziala eta hura lortzeko ikasketa-planen berezko zuzentarau orokorrak ezartzen ditu. 1991ko urriaren 10eko BOE, 243. zk.

⁶ Urtarrilaren 30eko 168/2004 Errege Dekretuak gizarte-hezkuntzaren arloko titulu jakin batzuen eta 1991ko abuztuaren 30eko 1420/1991 Errege Dekretuak ezarritako Gizarte Hezkuntzako diplomadunaren titulu ofizialaren arteko baliokidetasuna deklaratzeko baldintzak arautzen ditu. 2004ko otsailaren 13ko BOE, 38. zk.

Urriaren 4ko ECI/3296/2004 aginduak 2004ko urtarrilaren 30eko 168/2004 Errege Dekretuan aurreikusitako ezagutzak maila berean jartzeko ikastaroa ezartzen du (2004\376 LBK). Azken dekretu horrek gizarte-hezkuntzaren arloko titulu jakin batzuen eta 1420/1991 Errege Dekretuak



- Urtarrilaren 30eko 168/2004 Errege Dekretuak gizarte-hezkuntzaren arloko titulu jakin batzuen eta 1420/1991 Errege Dekretuak ezarritako Gizarte Hezkuntzako diplomadunaren titulu ofizialaren arteko baliokidetasuna deklaratzeko baldintzak arautzen ditu.
- Urriaren 4ko ECI/3296/2004 aginduak 2004ko urtarrilaren 30eko 168/2004 Errege Dekretuan aurreikusitako ezagutzak maila berean jartzeko ikastaroa ezartzen du (2004\376 LBK). Azken dekretu horrek gizarte-hezkuntzaren arloko titulu jakin batzuen eta 1420/1991 Errege Dekretuak ezarritako Gizarte Hezkuntzako diplomadunaren titulu ofizialaren arteko baliokidetasuna deklaratzeko baldintzak arautzen ditu.

11. Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuak, 2006ko martxoaren 30ean, emandako aginduaren bidez onartu ziren Elkargoaren Estatutuak.⁷

III. GOGOETA LEHIARI BURUZKO ARAUAK DIRELA ETA

1. Elkargoaren helburuak eta funtzioak

12. Estatutuen 8. artikulua elkargoaren helburuak ezartzen ditu, eta 9. artikulua berezko funtzioak.

8. artikulua. Helburuak

Elkargoaren helburuak honako hauek dira: Lanbidea eta elkargoko kideen interes orokorrak ordezkatu eta defendatzea Euskadin, eremu guztietako administrazio publikoekiko harremanetan bereziki.

9. artikulua. Funtzioak

Honako hauek dira elkargoaren funtzioak:

a) Lanbide-jarduera antolatzea forma eta modalitate guztietan, legeek ezarritako esparruaren barruan, eta lanbidearen jarduna zaintzea.(...)

f) Lanbidearen ordezkaritza eta defentsa egitea administrazio publiko, erakunde auzitegi eta gainerako pertsona publiko eta pribatuen aurrean, eta zilegitasuna izango du lanbide-interesei eragiten dieten auzietan alderdi gisa agertzeko.(...)

13. Lehiaren Batzorde Nazionalak (LBN), zerbitzuen zuzentzarauaren transposizioaren ondorengo elkargo profesionaleri buruzko txostenean, adierazi du, elkargoko kide izatea nahitaezkoa ez den lanbideetan, elkargo profesionalen funtzioak gainerako elkarte profesionalak dituztenen antzekoak

ezarritako Gizarte Hezkuntzako diplomadunaren titulu ofizialaren arteko baliokidetasuna deklaratzeko baldintzak arautzen ditu. 2004ko urriaren 14ko BOE, 248. zk.

⁷ Agindua, 2006ko martxoaren 30ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, Elkargoaren Estatutuak onartzen dituena. 2006ko maiatzaren 25eko EHAA, 98. zk.



direla. Hortaz, ez du ematen justifikatua dagoenik elkargoek pribilegiozko estatus bati eustea, eta gomendagarria izan liteke, eraginkortasunagatik, elkarte bezala eratzea⁸.

«Printzipioz, lanbide elkargodunek, beren izaeragatik, elkargo bat dute. Baina badira elkargokide izatea nahitaezkoa ez den arren, elkargo profesionala duten lanbide tituludunak. Elkargokide izatea nahitaezkoa ez den lanbideak daudenez, zalantzan ipin liteke elkargo profesional horien izaera publikoa; izan ere, kasu horietan, beren xedek ia bat datoz elkarte profesionalak dituztenekin. Edonola ere, horren ondorioz, egungo ordenamendu juridikoan, lanbide elkargodunaren kontzeptua zabalagoa da, eta elkargokide izatea nahitaezkoa izan ez arren elkargo profesionala duten lanbideak ere barne hartzen ditu».

«Azkenik, beharrezkoa da elkargokide izatea nahitaezkoa ez den lanbideei buruzko hausnarketa bat egitea. Teorian, elkargokide izatea nahitaezkoa ez den lanbideetan, elkargo profesionalak elkarte profesionalen antzeko funtzioak dituzte, eta izatez elkarrekin lehiari aritzen dira profesionalen ordezkari izateko, eta kasu horretan ez dirudi justifikatua dagoenik elkargoek duten pribilegiozko estatusari eustea. Alabaina, EPLk eta beste lege batzuek pribilegio ugari aitortzen dizkiete elkargo profesionali, elkarteen aurrean, hala nola, korporazio publikoaren izaera, agintaritza eskudunaren izaera, izena, peritu judizialen zerrendetan eta antzekoetan duten papera, oniritziak eta txosten honen gainerako ataletan aipatutako beste gai batzuk. Beharrezkoa da legegileak jakitea, elkargokide izateko beharrik ez dagoen lanbideetako elkargoei EPLk ematen dien egungo estatusari eustea erabakitzen badu, lehiarentzako mugak eragin ditzakeela elkargoei zenbait pribilegio aitortzeak. Horregatik, komenigarria litzateke pribilegio horiek kentzea edo, mantentzea erabakitzen badu, justizia, proportzionaltasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak oinarri hartzea».

Era berean, LBNk adierazi du, zerbitzu profesionalen lege-aurreproiektuari buruzko txostenean, elkargokide izatea nahitaezkoa ez den lanbideetan elkargo profesionalak beharrik gabe eusten dietela zenbait pribilegiori (korporazio publikoa, perituen zerrendak, oniritziak, etab), eta arrazoizkoagoa dela elkarte profesional bilakatzea eta izen hori hartzea⁹.

«(...) beharraren eta proportzionaltasunaren irizpideen arabera, desiragarria izango zen borondatezko kideak duten elkargoak zuzenbide pribatuko erakunde bihurtzeko aukera baloratzea, aurreproiektuaren 28. artikuluan eta zortzigarren xedapen gehigarrian hautatu den aukeraren orde. Horrela, gainera, arau-esparru sinple eta argiagotzat bat ezarriko zen guztiontzat».

⁸ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. Zerbitzuen Zuzentarauaren transposizioaren ondoren Elkargo Profesionalen buruzko txostena, Madril, 2011. 11, 12 eta 22. or. Webgune honetan irakurri ahal da: https://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Informes_y_Estudios_Sectoriales/2012/Informe%20Colegios%20Profesionales%20tras%20Directiva%20de%20Servicios.pdf.

⁹ MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. 110/13 arau-aurreproiektuaren txostena, zerbitzuen eta elkargo profesionalen lege-aurreproiektuari buruzkoa, 21 or. https://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Informes_sobre_normativa/2013/IPNAPLSCP.pdf.



14. Elkargokide izatea borondatezkoa eta ez da lanbidean aritzeko baldintza; horrenbestez, ez dago justifikaturik berari lanbidea antolatu, zaindu, ordezkatu eta defendatzea egoztea.

Horregatik, Estatutuen 8. eta 9. artikulua aldatzea eskatzen dugu, elkargoari lanbidea ordezkatu, zaindu, defendatu eta antolatzea egozten baitiote.

2. Sartzeko baldintzak eta prozesua

15. 18/1997 Legearen 5.1 artikulua baldintza hauek ezartzen ditu lanbide-jarduera gauzatzeko:

- «a) Dagokion titulua izatea, lege honetako 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - b) Ez egotea desgaitasun profesionala edo egoeran.
 - c) Legeak ezarritako bateraezintasun edo debeku kasuren batean ez egotea.
 - d) Elkargoko kidea izateko arauak, halakorik bada, betetzea.
2. Legeak hala araututa soilik, aurreko baldintzez bestelako baldintzak ezarri ahal izango dira».

16. Estatutuek sozietate profesionalak arautzen dituzte sartzeari buruzko 10. artikuluan:

10. artikulua. Sartzea.

(...)

3.- Sozietate profesionalak. Martxoaren 15eko 2/2007 legea aplikagarri zaien sozietate profesionalak, gizarte-hezitzaileen berezko jarduera, bakarrik edo bateragarri den beste jarduera profesional batekin batera, amankomunean gauzatzea xedetzat badute, elkargoan sartuko dira, betiere haien egoitza soziala edo gizarte-hezitzaileen berezko ekintzetan duten jarduera bakar edo nagusia EAEn badago.

Sozietate profesionalak dagokie elkargoan Batzar Nagusiko kide gisa parte hartzeko eskubidea, botoa emateko eskubide aktibo eta pasiborik eduki ez arren, horrek ez baitu eragozten elkargoan inskribatutako profesionalak berezko eskubidea izatea.

17. Sozietate Profesionalak buruzko Legeak (martxoaren 15eko 2/2007) ¹⁰ 1. artikuluan ezartzen du xede sozialtzat jarduera profesional bat amankomunean gauzatzea duten sozietateak sozietate profesional gisa eratu beharko direla.

Sozietate Profesionalak buruzko Legearentzat jarduera profesionala honako hau da: bertan jarduteko unibertsitate-titulazio ofizial bat eskatzen duena, edota

¹⁰ Martxoaren 15eko 2/2007 Legea, Sozietate Profesionalak buruzkoa. 2007ko martxoaren 16ko BOE, 65. zk. Bertsio bateratua eskura, hemen: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2007/BOE-A-2007-5584-consolidado.pdf>.



titulazio profesional bat, horretan aritzeko unibertsitate-titulazio bat egiaztatu eta dagokion elkargo profesionalan inskribatu beharra badago.

Lehen ere adierazi dugunez, Hezitzaileen Euskadiko Elkargoan sartzea borondatezkoa da, eta lanbidean aritzeko ez da beharrezkoa elkargoko kide izatea; hori dela eta, ez da betetzen Sozietate Profesionalei buruzko Legeak haren barruan sozietate profesionalak sartzeko aurreikusten duen baldintza.

Ondorioz, LEA honek Estatutuen aldaketaren 10.3 artikulua kentzeko eskatzen du.

3. Elkargoaren erreakzioa lehia desleialeko kasuetan

18. 18/1997 Legearen 11.2 artikuluan ez da inola ere jasotzen elkargoek lanbideko intrusismoa, ezta lanbidearen interesei eragiten dieten jardun ilegalak edo irregularrak ere, jazartzeko funtziorik.

19. Estatutuek honako hau ezartzen dute:

66. artikulua. Falta astunak:

Falta astunak dira:

(...)

d) Kideenganako lehia desleiala dakarten ekintzak, hirugarren bati kalte eginda.

(...)

20. Lehia desleialari dagokionez, Elkargoaren funtzioa eskumeneko organoei lehia desleiala jakinaraztera mugatu behar da, dagokion araudia aplikatu dadin¹¹.

21. Diziplina-neurriak hartu ahalko dira, baina lehia desleialeko jokabideak daudela adierazten dituen ebazpen judizial bat dagoenean soil-soilik¹².

4. Ordainsari profesionalak eta zerbitzu profesionalen publizitatea

22. Elkargoaren estatutuek lehia desleiala arautzen dutenean, honako hau adierazten dute ordainsari profesionalari eta publizitateari dagokienez:

¹¹ Ikus 17. Ierrokada LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA, *Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuaren Kontseiluaren Estatutuak*. Bilbo, 2013ko uztailaren 24a, http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/adjuntos/Informe%20Consejo%20Graduados%20Sociales.pdf.

¹² Lehiaren Espainiako Batzordea, *Elkargo Profesionalei buruzko txostena... op. cit.* 75. or.

**21. artikulua. Lehia desleiala:**

1.- Gizarte-hezitzaileek era guztietako lehia desleiala saihestu behar dute, bai eta **publizitate edo propagandan, elkargoak** edo batzar nagusiak **ezartzen dituen arauetara dagokienez** ere. Nolanahi ere, debekaturik egongo da propaganda engainagarria, lehiaren arloko indarreko araudiaren aurkakoa eta **ordainsari profesionalen arloko elkargoaren araudiaren aurkakoa**.

23. Ordainsari profesionaleri dagokienez, Omnibus legeak ezabatu egin zuen EPLren 5. artikulua Elkargo Profesionaleri esleitzen zien funtzio hura – ordainsari orientagarriak ezartzea, hain zuzen—, eta berariaz debekatu zuen halakorik egitea, 14. artikuluan¹³.

EPLren xedapen gehigarrian dator salbuespen bakarra, zeinak aukera ematen baitu elkargo profesionalak «irizpide orientagarriak» (ez baremoak) prestatzea, kostuak tasatzeko eta abokatuaren kontuei zin egiteko besterik ez. Irizpide horiek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko.

24. Elkargoak ezin du ordainsari minimo edo orientagarririk ezarri, ezta halakoak ezartzeko irizpiderik ezarri ere; horrenbestez, ordainsari profesionalen arloko elkargo-araudiaren erreferentzia ezabatzeko eskatzen dugu.

25. Elkargoko kideen zerbitzu profesionalen publizitateari dagokionez, Omnibus legeak Elkargo Profesionaleri buruzko Estatuko Legea aldatu zuen, Elkargoko profesionalen merkataritza-mezuetan Legeak aurreikusi gabeko mugak ezartzeko ahalmena kenduz; horrenbestez, elkargoek beren arauetan publizitate-kontuei lotuta ezar ditzaketen xedapenek —esate baterako, lanbidearen independentzia eta osotasuna babestekoak— hauxe baino ezin diezaiekete eskatu elkargokideei: legeekin bat etortzea.

Hala, aipatutako arauaren 2.5.2 artikuluan honako hau dago jasota:

«Elkargoaren estatutuetan edo Elkargoek onartzen dituzten kode deontologikoetan, berariazko aurreikuspenak jaso daitezke, elkargokideei eskatzeko komunikazio-kontuetan legearekin bat datorren jokabidea izan dezaten. Horren xedea da lanbidearen independentzia eta osotasuna babestea, bai eta, hala dagokionean, lanbide-sekretua ere».

26. Horrenbestez, elkargoaren barneko arau edo kode deontologikoetan ezin izango dira ezarri Publizitateari buruzko Lege Orokorrak (azaroaren 11ko

¹³ EPLren 14. artikulua: ordainsariei buruzko gomendioak debekatzea: «Elkargo profesionalak eta haien mendeko erakundeek ezin izango dute ordainsari profesionaleri buruzko baremo orientagarririk, gomendiorik, jarraibiderik, ez araurik jaulki, laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa izan ezik».



34/1988) aurreikusitako mugak baino handiagoak, eta kontuan hartuko dute, gainera, lege horren 5.1 artikulua honako hau xedatzen duela¹⁴:

«Beren arau bereziek erregulatu edo aldez aurreko administrazio-baimenaren araubidearen mende jarri ahal izango da osasun-materialen edo -produktuen eta araudi tekniko-sanitarioak bete beharrekoen publizitatea, bai eta pertsonen edo haien ondarearen osasun edo segurtasunari arriskuak eragin diezazkieketen produktuen, ondasunen, jardueren eta zerbitzuen publizitatea ere, edota zori-, enbido- edo adur-jokoen gaineko publizitatea denean. Araubide hori ezarri ahal izango da, orobat, Konstituzioan aitorturiko balio eta eskubideen babesak hala eskatzen duenean».

5. Baliabide ekonomikoak

27. Estatutuek honako hau ezartzen dute:

56. artikulua. Baliabide ekonomikoak.

1.- Elkargoak ohiko eta ezohiko baliabide ekonomikoak edukiko ditu.

2.- Honako hauek izango dira elkargoaren ohiko baliabideak:

- a) Elkargokideen sarrera-kuotak.
- b) Elkargokideen sarrera-kuotak.
- c) Batzar Nagusiak onartzen dituen ezohiko kuotak.(...)

28. Lehiaren Espainiako Batzordeak Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizioaren osteko Elkargo Profesionalei buruzko txostenean honako hau adierazi zuen¹⁵:

«Ikuspegi ekonomiko batetik, Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten zenbatekoak handiak badira, ezin berreskuratuzko kostutzat har daitezke, Elkargoko kide izatea merkatuan lehiatzeko abantaila esanguratsua denean, batez ere. Merkatuan sartzeko oztopo bat da kuoten zenbatekoa handia izatea, eta lehiakide berriek merkatuan sartzeko gogoia galtzea, merkatuan berandu sartzea edo merkatuan ezin sartzea ekar dezake. Horren ondorioz, benetako lehia murriztagoa da, eta gainera, Elkargoko kideek Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten kostuak erabiltzaileek eta kontsumitzaileek ordaindu behar izatea eragin dezake».

29. Kontuan izanik Elkargoko kuotek proportzionalak izan behar dutela eta ezin dutela diskriminatu, kuota horiek Elkargoak elkargokideei ematen dizkien zerbitzuen arabera kalkulatu beharko lirateke, eta ez elkargokideen lanaren ordainsarien arabera.

¹⁴ 34/1988 Lege Orokorra, azaroaren 11koa, Publizitateari buruzkoa (1988ko azaroaren 15eko BOE, 274 zk.). Testu bateratua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1988-26156>

¹⁵ Lehiaren Espainiako Batzordea, *Elkargo Profesionalei buruzko txostena... op. cit.* 57. or.



6. Elkargoa eta gizarte-hezitzaileak lehiaren arloko araudiaren mende egotea

30. Adierazi bezala, EPLren 2.1 artikulua ezartzen duenez, lehia libreko araubidean egingo dira elkargoko lanbideak, eta Lehiaren Aldeko Legeari eta Lehia Desleialaren Legeari lotuta egongo dira zerbitzuen eskaintzari eta horien prezioak ezartzeari dagokienez¹⁶.

Horregatik, komeni da Estatutuetan berriaz aipa dadila gizarte-hezitzailearen jarduerak profesionalen arteko lehia-araubidean gauzatuko direla. Horrela, gomendatzen da honako hau txertatzea Elkargoaren estatutuetan:

«Lehia askeko araubidean egingo da gizarte-hezitzaileen bitartekaritza-jarduera, eta Lehiaren Aldeko Legeari lotuta egongo da zerbitzuen eskaintzari eta horien ordainsariak zein zerbitzua emateko gainerako baldintzak ezartzeari dagokienez».

31. Elkargoak lehia defendatzeko araudia bete beharko du, halaber, bai estatutuak eta elkargoko beste arau batzuk idaztean (hala nola barne-erregelamenduak, ezarrirako prozedurak, eta arau deontologikoak), bai eta jardunean aritzean ere¹⁷.

Hori dela eta, estatutuen testua kontuan izan gabe, elkargoak ezin du hartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ere, lehia defendatzeko legediaren arau-haustea izan daitezkeelako. EPLren 2.4 artikulua horrela eskatzen du.

IV. ONDORIOAK

Lehenengoa. Gomendatzen dugu estatutuetan berriaz aipatzea gizarte-hezitzailearen lanbidearen jarduna profesionalen arteko lehia askearen araubidean gauzatuko dela.

Bigarrena. Elkargoak ezin du hartu lehia mugatzen duen, edo «merkatua antolatzen duen», erabaki edo gomendiorik, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ere, lehia defendatzeko legediaren arau-haustea izan

¹⁶ Auzitegi Gorenaren 2009ko ekainaren 2ko Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. sekzioa (5763/2006 KE). Auzitegi Gorenaren Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala, 2007ko ekainaren 19koa (9449/2004 KE): Auzitegi Gorenaren Epaia. Administrazioarekiko Auzien Sala, 2008ko azaroaren 4koa (5837/2005 KE).

¹⁷ EPLren 2.4 artikulua ezartzen du elkargoen akordio, erabaki eta gomendioek LDLren mugak kontuan hartuko dituztela.



daitezkeelako. Akordio, erabaki edo gomendio guztiek LDL errespetatu behar dute.

Era berean, elkargoaren jardunak elkargoko kideen interes korporatiboen defentsa soilaz harago joan behar du; kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak ere babestu behar ditu, gizartearen interes eta premia orokorrekin bat etorriz.

Hirugarrena. Beharrezkoa da estatutuetakoko artikulua hauek aldatzea:

- 8 (Helburuak)
- 9.a eta f (Funtzioak)

Artikulu hauek ezabatu behar dira:

- 10.3 (Sozietate profesionalak)
- 21 (Lehia desleiala: Ordainsari profesionalak erregulatzen dituzten arauen erreferentzia).